

[Berria.info](#) » [Papereko Edizioa](#) » [Plaza](#)


2012-05-31

JOXE AZURMENDI. IDAZLEA

«Unamuno ez da inoiz liberala izan; antiliberala zen azken fasean ere»

Unamunori buruzko topiko ezagunei kontrapuntua jarri die 'Bakea gudan' lanean, haren kontraesanak eta garrantzia nabarmenduz.

GORKA EROSTARBE

«Unamuno inportantea ez da pentsatzaile politikoa, nahiz eta nik hori aztertu dudana». Miguel Unamunoren *Paz en la guerra* nobelaren «irakurketa kritikoa» da *Bakea gudan. Unamuno, historia eta karlismoa* liburua (Txalaparta), Joxe Azurmendi idazle eta pentsalariak (Zegama, Gipuzkoa, 1941) argitaraturiko azken lana.

***Paz en la guerra* nobelaren inguruan egindako tesi espainolistak «falsifikazio» bat direla esan duzu berriki *Bakea gudan* liburuaren aurkezpenean. Zergatik?**

Unamunoren nobela karlistaden interpretazioa bat da, baita Euskal Herriaren eta modernitatearen meditazio bat ere. Euskal Herria eta modernitatea elkarrezinak direla du tesitza. Hori topiko ezaguna da Unamunorengan. Topikoa da gure artean, hain zuzen ere, Unamuno euskararen etsaia zela, abertzaleen etsaia ere bai. Ezaguna da, batez ere, 1901eko Lore Jokoetako hitzaldia: euskarak hil egin behar du, ez da gauza modernitateko pentsamendua adierazteko, eta abar...



/ GORKA RUBIO/ ARGAZKI PRESS

Eta hori espainolismoaren diskurtsoak bere argumentu bihurtu du.

Unamuno posizio horretara nola joaten den ulertu behar da, ematen diren esplikazio batzuk sinplistik baitira. Unamuno abertzale gisa hasi zen, hala dio berak ere. Sabino Aranaren abertzaletasunaren ideia asko berari zor zaizkiola esan zuen gerora ere. Gero tesi kontrarioetara joateko zer pasatu zitzaion? Unamunok, Madrilan ikasle zela, positibismo ingelesa ezagutu zuen, Herbert Spencerrena, batez ere. Horrekin deskubritu zuen progresoaren filosofia bat, modernitatearen filosofia bat. Eskema horren arabera, herri arkaiko primitiboek ez daukate lekurik historian, baztertuak geratzen dira.

Eta Unamuno konbertitu egin zen?

Bai, bai erlijiosoki eta baita politikoki, bere lehenengo katolizismo eta abertzaletasunetik positibismo filosofiko batera, eta PSOEn sartu zen. Fase horretan idatzi zuen *Paz en la guerra* liburua. Sozialismoaren barruan dago, progresoaren sinestun da, filosofia positibista onartu du, fede berri bat da, baina nobelan ez du horrelako ezer erakusten. Nobelan karlistek daukate rol positiboa, nahiz eta gero sakrifikatuak izango diren, eta liberalek hartzen dute rol negatiboa, nahiz eta garaile aterako diren. Gaur egun ere, asko aipatzen da «Unamuno liberala», baina Unamuno liberala ez da inoiz izan, antiliberala izan da gero ere, estatuaren dogmatiko bat izango da bere azken fasean ere.

Sozialismoaren aurkako jarrera ere hartu zuen gerora.

Bai. Oso kritikoa bihurtu zen sozialismoarekin, anarkismora makurtzen da, une batean behintzat; karlistak identifikatzen ditu anarkistekin, sinpatia guztiz... Bizkaiko eta Espainiako sozialismoari kritikatzeko dio euskal arazoa ondo ez ulertzea, zentralistak izatea, eta abar...

Eta azken Unamuno, existentzialista da garrantzitsuena?

Azken faseak egingo du inportante Unamuno pertsonaia gisa. Unamuno existentzialista edo pre-existentzialista da, irrazionaltasunaren errebindikazioa egiten duena. Bere azkeneko filosofia hori, bere inportanteena eta definitiboa, ez dio aplikatu Euskal Herriko arazoari. Lehenago ukatu badu Euskal Herria eta abertzaletasuna modernoa ez delako, orain, koherentea balitz, berrirakurri egin beharko luke euskal arazoa, baina ez du egiten. Akaso sentimentalki bai, Hendaian idatzitako gutun batzuetan-eta badirudielako berriro egokitu duela bere jarrera, baina ideien aldetik espainola eta espainolista da oraindik. Ez da koherentea bere pentsamenduarekin. Eta hain zuzen ere, bere pentsamendu horri, existentzialismoari, ondorioak aterako dizkiona eta pentsamendu horrekin euskal arazoa berrirakurriko duena gerraondoko belaunaldia izango da. Salvatore Mitxelena, Txabi Etxebarrieta eta, batez ere, Txillardegia.

Berrikuspenik merezi du Unamunoren pentsamenduak egun ere?

Unamunok beti merezi du. Unamuno benetan pentsalari handietako bat da. Handietako bat delako erabil daiteke oso modu diferentetan, hain zuzen ere. Espainolismoak horrela aprobeztatu izan du, nahiz eta falangisten bizkarretan hilobiratu zuten. Edozeinek aprobeztatzeke moduko materiala dauka.

Espainolismoak bere alderako erabili duen hein berean ez al du euskal kultur eta politika komunitateak erraz alboratu du Unamunoren pentsamendua?

Bai, gure artean topikoa da Unamunoren ukoa. Oso sinplea da: euskararen etsaia zen, eta kito. Baina ahaztu egiten dugu gerraondoko euskaltzalerik bortitzenak Unamunok inspiratu zituela. Baina Unamuno handia, poeta alde batera utzita, existentzialista da. Obra horietan agertzen da egiazko Unamuno. Unamuno interesgarri da, oraindik ere, ez bada murrizten «liberal inozo» bat izatera, ez baita hori.